



**ba  
da  
TOZ!**

*santa anastasia jaiak*

urretxu 2014

# 2014

## iraila / septiembre

# Zure jaiak. Gure jaiak.

igandea <b>14</b>	<u>8.orrialdea</u>	<u>página 47</u>	<b>14</b> domingo
ostirala <b>19</b>	<u>9.orrialdea</u>	<u>página 48</u>	<b>19</b> viernes
larunbata <b>20</b>	<u>11.orrialdea</u>	<u>página 50</u>	<b>20</b> sábado
igandea <b>21</b>	<u>14.orrialdea</u>	<u>página 53</u>	<b>21</b> domingo
astelehena <b>22</b>	<u>18.orrialdea</u>	<u>página 57</u>	<b>22</b> lunes
igandea <b>28</b>	<u>20.orrialdea</u>	<u>página 59</u>	<b>28</b> domingo

2013 urteko karrozak 30-31.orrialdeak páginas 30-31 carrozas del año 2013

	GASTUAK	SARRERAK
PREGOIA	500,00 €	
ABELGORRI LEHIAKETA	7.244,00 €	
GASTRONOMIA LEHIAKETA ETA AFARIA	6.000,00 €	
EUSKAL JAIA EGUNA (goizeko jarduna, karroza ibilaldia, musika eta dantza taldeak, idiak, aseguruak etab..)	22.610,00 €	
ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK	2.605,00 €	
ZEZENTXOAK ETA PONIAK	1.368,00 €	
IDI PROBAK	2.700,00 €	
KONTRATAZIOAK (musika taldeak, ikuskizunak, haur parkea, minimoto lasterketa, ...)	12.994,60 €	
OLINPIADAK	1.500,00 €	
MEGAFONIA EKITALDI GUZTIETAN	8.860,00 €	
AZPIEGITURA OROKORRAK (aulki, mahai, karpa eta komunak)	10.612,00 €	
PUBLIZITATEA	3.234,09 €	
FOLKLORE JAIALDIA	8.496,00 €	
TXISTU KONTZERTUA	3.600,00 €	
KOADRILEN EGUNA (bazkaria eta jokuak)	640,00 €	
TXOSNAK (dirulaguntza)	8.000,00 €	
EGITARAUA ETA KARTELAK	4.431,00 €	7.100,00 €
SGAE	1.100,00 €	
ADINEKO PERTSONEN ASTEA	6.500,00 €	
BESTE GASTU BATZUK (argazkilaria, zapiak, ...)	3.000,00 €	432,00 €
AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA	200 €	
AUTOBUS ZERBITZUA (Autobuses Pesa)		1.550,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>116.194,69 €</b>	<b>9.082,00 €</b>

## JAIETAKO ZAPIA ETA IKURRIÑA

Honako lekuotan izango dituzue zuen eskura  
- Aizpurunea kultur etxea  
- Urretxuko tabernak

## BARRAKAK

Lizeoko jolastokian jarriko dira  
(irailaren 19tik 22ra)

## AUTOBUS BEREZIAK

Aurten gaueko autobus zerbitzua indartu egingo da. Urretxuko festetan ondo pasa nahi duten bisitariak lasai etorri eta joan daitezten. Hauek dira zerbitzuaren ordutegia eta ibilbideak:

**Irailak 19 eta 20, ostirala eta larunbata**  
**Legazpira** joan eta etortzeko 30 minuturo egongo da autobusa, 23:30ean lehena eta 06:00etan azkena.  
Geralekuak:  
Zumarragan geltokian, Legazpin papelera biribilgunean  
Bidaiaren kostua: 2 €

**Irailak 20 larunbata**  
**Bergarara, Antzuolara, Beasainera eta Ordiziara,**  
Bidaiaren kostua: 2 €

Bergara	Antzuola	Zumarraga	Beasain	Ordiza
23:30	23:40	23:55		
0:30	0:40	0:55		
1:30	1:40	1:55		
2:30	2:40	2:55	3:10	3:25
5:00	5:15	5:25	5:40	5:55
Ordiza	Beasain	Zumarraga	Antzuola	Bergara
		0:00	0:15	0:25
		1:00	1:15	1:25
		2:00	2:15	2:25
3:30	3:45	4:00	4:15	4:25
6:00	6:15	6:30	6:45	6:55

Udaren amaierarekin batera, Urretxuko jaiak ate joka datoz beste urte batez.

Festak aukera paregabea dira eguneroko buruhauste eta arazoak epe batez alboratu eta plazer txikiez gozatzeko: betiko lagunekin elkartu, taldean abestu, dantza egin... edo-ertarako aukera izaten baita egun hauetan!

Hori horrela izanik ere, argi dago edozein herritako jaiak, bertako herritarren balore eta tradizioen isla ere badirela, Urretxu ere, horren isla garbia da. Herria betidanik izan da festak eredu parte hartzailearen bitartez antolatzen, eta azken urteetan bultzada handia hartu du Jaietako Batzordea gazte andanaz bete baita.

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da urte urte, auzolanean oinarrituta dozenaka herritarrek herriko festak antolatu eta aurrera eramateko egiten duten esfortzua. Are gehiago, kontuan izaten badugu, guztion gozamina eta parte hartzea bilatzen dutela antolatzaileok. Eskerrak eman nahi dizkiegu egiten duten lanagatik. Biba zuek!

Etengabeko esfortzu horren ondorioz, Urretxuko festak modu jasangarrian, emakume eta gizonen arteko berdintasunetan eta euskalzaletasunean bizitzeko aukera izango ditugu, eta horretara gonbidatu nahi ditugu urretxuar guztiak eta kanpotik bisitan datozkigunak. Irribarrez eta ilusioz bizi ditzagun aurten ere jaiak, era berean bertan ez daudenekin gogoratuz.

Jantzi zapia, festak disfrutatu eta Euskal Jaiaren ikur nagusi moduan atera ikurriña gure etxeetako balkoietara eta baserritar jantzi. Bete ditzagun kaleak euskal giro eta kolorez!

Gora Urretxuko festak!!

EUSKAL  
JAI  
NAHI DUT



# ADINEKOEEN ASTEA

## ATERPEKO KIDEEN ESKULAN ERAKUSKETA

Egunak: Irailaren 8tik 14ra  
Lekua: Juan de Lizarazu erakusketa aretoa  
Ordutegia: Arratsaldez



## BELAUNALDIEN ARTEKO EKIMENA: GAZTE IZANA GAZTE BIDEAN

Eguna: Irailak 12 ostirala  
Ordua: 17:00  
Lekua: Iparragirre plazako Gazte Bidean lokala

Gazte izandakoak Gazte izateko Bidean daudenekin batera kideekin eskulana: arratsalde pasa.

Solasaldia, atzoko eta gaurko kontuak elkarri kontatu, eta horretaz gain, futbolen txapelketa, mobil erabilpen tailerra, bingoa, sukaldaritza tailerra eta merienda.

Elkarte ezberdinetako adineko Elkarte ezberdinetako adineko

-Arte plastikoetarako tailerra: murala margotu akrilikoekin  
-Harizpi elkar tea: bisuteria tailerra  
-Argazkia elkar tea: prozesuaren argazkiak



## irailak 14 igandea

### ADINEKOEEN EGUNA

#### EGUNEKO ZENTRORA BISITA BAZKARIA

Ordua: 11:30  
Udal Korporazioak Eguneko Zentrora bisita egingo du.

Ordua: 14:15  
Lekua: Ederrena pilotalekua

12:15ean adineko pertsonak eta Udal Korporazioa egoitzan elkartuko dira eta txistulari taldeak lagundurik, Iparragirre plazaraino joango dira.

Oharra: bazkarirako txartelak ATERPEN banatuko dira ondorengo egunetan eta orduetan: irailaren 9an, 10ean eta 11an, goizez 11:00-12:30 eta arratsaldez 16:30-18:30

#### OMENALDIA

Ordua: 13:15  
Lekua: Iparragirre Plaza

URRETXUKO PERTSONA NAGUSIENA OMENDUKO DA. Bertaratutako adineko pertsonen ARGAZKIA aterako zaie. Ondoren, **LURRA** Dantza taldearen saioa Iparragirre plazan.

#### DANTZALDIA

Ordua: Bazkalostean  
Lekua: Ederrena pilotalekua

JON TIRAPUREn eta ANDONI MMren eskutik. Animazio ekintzak ere izango dira.



## URRETXUARRAK MUNDUAN TOPAKETA

Ordua: 18:00  
Lekua: Udaletxean

Aniztasun eta Bizikidetzeta mahaia- ren eskutik. Munduan ibilitako eta dabiltzan urretxuarren testigantzak jasoko dira, jatorri aniztasunaren argazkia egiteko asmoz.

## irailak 12 ostirala

### GOIERRI K.E. SASKIBALOI TALDEAREN AURKEZPENA

Ordua: 18:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

## irailak 13 larunbata

### HUTSUNERIK GABEKO EGUNA

Ordua: 18:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

13:00 - HERRI KIROLAK  
14:00 - DANTZARIAK  
14:30 - BAZKARI HERRIKOIA  
Bazkalostean, herriko trikitilariak alaituriko **ERROMERIA**.  
21:00 - Labeaga aretoan, **BERTSO SAIOA**.

Bertsolariak: Jokin Uranga, Jone Uria, Iker Zubeldia, Miren Amuriza, Iñigo Mantzisor "Mantxi", Hodei Barroso, Mikel Iturrioz eta Nerea Elustondo.



# irailak 12 eta 13 ostirala eta larunbata

## GOIERRI K.E. ARETO FUTBOL TALDEAREN 25. URTEURRENA

### “ARETO FUTBOLAK 25 URTE” ERAKUSKETA

Eguna: Irailak 12 ostirala  
Ordua: 17:00 – 20:00  
Lekua: Urretxuko udaletxeko atarian



Eguna: Irailak 13 larunbata


09:30 3x3 txapelketa (6-13 urte bitartekoentzat), Iparragirre plazan  
10:00 – 13:00 / 17:00 – 19:00 Puzgarriak, Iparragirre plazan  
10:00 – 13:00 / 17:00 – 19:00 Erakusketa, Udaletxeko atarian  
16:00 3x3 txapelketa finalak eta puzgarriak  
16:30 Beteranoen partidua, Aldiri kiroldegian  
18:30 Agintarien harrera  
20:00 Futsal taldeen auzpepena (14-15), Ederrena pilotalekuan  
22:00 Goierri Futsal taldekoen afaria, Ederrena pilotalekuan  
00:30 Ikuskizun dibertigarria  
02:00 DJ festa

# irailak 14 igandea

## XXIII. MENDI BIZIKLETA PROBA

Irteera ordua: 09:00  
Irteera eta helmuga:  
Areizaga-Kalebarren plaza

Derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea.



Mikel Otaegi

## irailak 19tik-22ra


### GAZTEANASTASIAK ARGAZKI LEHIAKETA

Oinarriak: [www.urretxu.net](http://www.urretxu.net), GB zerbitzuan eta Gaztelekuan.

GAZTEANASTASIAK MOBILEN BIDEZKO ARGAZKI LEHIAKETA  
Mobilen bidezko argazki lehiaketa, Instagram plataforma erabiliz.

Bi maila: Gazte Bidean 12-17 urtetakoak; eta Gaztea 18-23 urtetakoak.

Sariak: Telefonorako hainbat osagarri.



# irailak 19 ostirala

## GAZTE BIDEAN, TXUPINAZO AURREKOAK

Ordua: 17:00-21:00  
Lekua: Iparragirre plaza

Gaztetxoek ondo pasatzeko ekintza sorta paregabea (12-15 urte bitartekoentzat).  
Ping-pong erakustaldia eta txapelketa.  
Futbolin txapelketa.  
Festetako bisuteria eta txapa tailerra.  
-Belarritakoak, eraztunak, pultserak eta bestelako pitxiak diseinatzeko eta egiteko aukera  
-Festetako txapak eta txapa kustomizatuak (norberak diseinatuak) egiteko tailerra

Irailaren 19tik 22ra txosnetan, gauetan, fruitu lehorrak eskuragarri. Alkoholaren kontsumu arduratsua egiteko.

## “IPAR AMERIKAR INDIGENAK” HAURENTZAKO IKUSKIZUNA

Ordua: 17:00  
Lekua: Domingo de Mendiaratz plaza

## TXOKOLATE JANA

Ordua: 18:00  
Lekua: Mundo Mejor, San Martin eta Pagoeta auzoak

## BURUHANDI ETA ERRALDOIEN IBILALDIA

Ordua: 19:00  
Lekua: Mundo Mejor, San Martin eta Pagoeta auzoetik irtengo dira

Urretxuko “BANDOLEROAK” (Patakon, Goñi, Eder, Frantses Txikia, Galtxagorri eta Bizarbeltz) eta Azkoitiko “BURUHANDIAK”. Beraiekin batera URRETXUKO ERRALDOIAK ibiliko dira. Musika ikastetxeko trikitilarien eta “Iratzarri” dultzaineroen laguntzaz, Iparragirre plazarentz abiatuko dira.



## UROLATARRAK TXARANGA

Ordua: 19:30-22:30  
Kaleak girotzen ibiliko dira

## KALABAZINAREN IGOERA

Ordua: 19:30  
Lekua: Gaztetxetik Txosnetara

ZANPANTZARREN laguntzaz klasiko bat bihurtzen ari den kalabazinaren igoera burutuko da. 21:15ean kalabazinak pregoia irakurriko du Txosnetan.

## IPARRAGIRRE BALERDI ETA LIZARRITURRIEN KALEJIRA

Ordua: 19:30  
Lekua: Kaleetan zehar

“IPARRAGIRRE BALERDI” MUSIKA TAILERRA, eta “LIZARRITURRI” TXIS-TULARI TALDEAREN kalejira giro ezin hobean.

## SASKIBALOI PARTIDA

Ordua: 20:00  
Lekua: Aldiri kiroldegia

GOIERRI-VERKOL, DISDIRA BITXITEGIA ISB (Azpeitia) taldearen aurka.



## LUNTXA

Ordua: 20:00  
Lekua: Udaletxea

Jai Batzordean festen antolaketa parte hartu duten guztientzat LUNTXA udaletxean.

## PREGOIA ETA TXUPINAZOA

Ordua: 20:30  
Lekua: Iparragirre plaza

PREGOIA irakurri ondoren, TXUPINAZOA. Aurtengo pregoilaria "GOIERRI K.E. ARETO FUTBOLA" TALDEA izango da. Aldi berean, banderak jarriko dira udaletxeko balkoi nagusian. "Lizarriturri" txistulariak, "Iratzarri" dultzaineroak, "Secundino Esnaola" Musika Ikastetxeko trikitilariak, buruhandiak, erraldoiak, "Iparragirre Balerdi" Musika Tailerra eta "Urolatarrak" txaranga arduratu dira elkartutako jende guztia dantzant jartzen, eta "URRETXU

## URRETXUKO SUZI OLINPIKOAREN DESFILEA

Ordua: 21:30  
Lekua: Ipeñarrieta kaletik hasita

Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten taldeen desfilea Ipeñarrieta kaletik hasita, Urolatarrak txarangen laguntzarekin, Gernikako Arbola plazara.

MARTXA"ren doinua entzun ahal izango da.

"GOIERRI K.E. ARETO FUTBOLA" TALDEA Urretxuko Goierri K.E Areto Futbol taldea 1989an sortu zen, bi herriotako gazte talde baten eskutik. Gipuzkoako talderik zaharrenetarikoa da. Emakumeen taldea ere sortu zuten 1991an, hau ere Gipuzkoako aitzindarietako bat. Egun, 6 talde dituzte, eta hainbat urtez taldean aritutako jokalariek, euren konpromiso maila erakutsiz, heldu diote taldea gidatzeari.

## URRETXUKO III. OLINPIAR JOKO II. HIP-HOP JAIALDIA

Ordua: 22:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Aurtengo edizioan, kirol probez gain partaideek bestelako abileziak erakusteko aukera ere izango dute nahi izanez gero (dantzatu, abestu, playbacka egin, txistek kontatu...).



Ordua: 00:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Bertan Urretxu-Zumarragako talde hauek arituko dira: **THROW RAP**, **AGRESIÓN VERBAL** eta **ARTILLERIA PESADA**. Baita Irungo **KULTO KULTIBO** eta Madril-Sevillako **EL CLUB DE LOS TRISTES** talde eza-guna (Jompy, trafik eta DJ Lazer osatutako taldea). Clubekoek bere azken lana aurkeztuko digute. Animatu eta hurbildu gozatzera!



El club de los tristes

## BAD SOUND SYSTEM + JUPITER LION

Ordua: 23:00  
Lekua: Txosna Gunea

Irun herriko Mosku auzotik builaka datorren hiruko banda da **Bad Sound System**. Ehunka kontzertu eskaini dituzte. Sustraidun musika beltza nagsitzen da euren doinuetan.

Valentzia aldetik datorkigu **Jupiter Lion** taldea.



Bad Sound System

## ABELGORRIEN ERAKUSKETA ETA LEHIAKETA

Ordua: 09:30  
Lekua: Abenida berria

Urretxuko baserrietako ABELGORRIEN ERAKUSKETA eta LEHIAKETARI hasiera emango zaio. "SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK izango dira bertan giroa alai-tzen.

Abelgorri irabazlearen pisua asmatzen duenarentzat (edota pisura gehien hurbiltzen denarentzat) bi txuleta eta gazta bat izango dira.

Txosna bat montatuko da, salda beroarekin eta bertako produktuen pintxoekin.



## ENTZIERRO TXIKIA

Ordua: 11:30  
Lekua: Abenidatik Gernikako Arbola plazara



Ondoren, ZEZENTXOAK ETA PONIAK Gernikako Arbola plazan bertan.

## BURUHANDI BANDOLEROAK

Ordua: 12:00  
Lekua: Aldiri kiroldegitik hasita

URRETXUKO BURUHAUNDI BANDOLEROEN eta AZKOITIKO BURUHANDIEN KALEJIRA. Aldiri - Joxe Mari Lasa plaza - Labeaga - Kalerrota - Zubimusu - Gernikako Arbola - Abenida - Udaletxea - Iparragirre kalea - Labeaga - Aldiri. Beraiekin batera "SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK.



## BERTSO-SAIOA

Ordua: 12:00  
Lekua: Abenida

ZUMARRAGA-URRETXUKO BERTSO ESKOLAKO BERTSOLARIK

Jarraian, GANADU LEHIAKETAREN SARI BANAKETA



## FOLKLORE TALDEEI ONGI ETORRIA

Ordua: 13:00  
Lekua: Udaletxea

Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duten taldeei ongi etorria.

Taldeak:  
- AURTZAKA DANTZA TALDEA (Beasain - Gipuzkoa)

- GRUPO FOLKLÓRICO RAICES DE CENICIENTOS (Cenicientos-Madrid)

- DRÓNAN & NUALA IRISH DANCERS (Irlanda)

## XAKE TXAPELKETA

Ordua: 16:00  
Lekua: Areizaga-Kalebarren plaza

Izen-ematea: doakoa izango da.

## AUTODEFENTSA FEMINISTA IKASTAROA

Ordua: 17:00-19:00  
Lekua: Udaletxeko atarian  
Izen-ematea: Urretxuko udaleko Gizarte zerbitzuetan.

Gure herriko jaietan betebeharrak eta buruhaustek alde batera utzi eta lagunekin alai betetzen ditugu herriko kaleak, dantzan eta parrandan tope! Emakumeok ere jaiez gozatzeko esku-bidea dugu, eta horregatik ligoteo sanoren aldeko aldarria egiten dugu. Neska, etorri autodefentsako tailerrera, gauzak argi uztera: Ez, Ezetz Da!!!

## XXXVIII. GASTRONOMIA LEHIAKETA

Ordua: 17:00  
Lekua: Gernikako Arbola plazako luzapeneko karpan

Jangaia: BAKAILAO-BOLAK SALTSA LIBREAN



## "TXINTXARRA ETA INURRIA"

Ordua: 17:30  
Lekua: Domingo de Mendaratz plaza

"TXINTXARRA ETA INURRIA" KONFUSION ANTZERKI TALDEA La Fontainen "Txintxarra eta Inurria"-ren bertsio berri eta alaiago bat aurkezten dizue. Betiko ipuina pixka bat aldatu eta dantza, musika, abestiak, umorea eta Irakaspen bat sartzen dira. Benetako historiaren gakoak ahaztu gabe: 4 urtaroak, lana eta alferkeria. Lan hau batez ere umeentzako egina da baina helduek ere asko gozatzeko dute.



HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO ANTZERKIA (\*Eguraldi txarra egingo balu, ekintza bertan mantenduko litzateke.)

## IDI PROBAK

Ordua: 18:00 eta 21:30  
Lekua: San Martin-Barrenkaleko probalekua



1. Saioko partaideak (18:00):  
EGOITZ ARMAOLEA  
PATXI ARANBERRI  
JOSE LUIS ZABALETA

2. Saioko partaideak (21:30):  
PABLO ARANBERRI  
ASIER IZAGIRRE

## HERRIARTEKO XXVI. FOLKLORE JAIALDIA

Ordua: 19:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Taldeak:  
- AURTZAKA DANTZA TALDEA (Beasain - Gipuzkoa)  
- GRUPO FOLKLÓRICO RAICES DE CENICIENTOS (Cenicientos-Madrid)  
- DRÓNAN & NUALA IRISH DANCERS (Irlanda)  
(\*Eguraldi txarra egingo balu, jaialdia Labeaga aretoan izango litzateke.)



## ESKANDALUE ELEKTRO-TXARANGA

Ordua: 19:00-21:30  
Lekua: Gaztetxetik Txosnetara

## GASTRONOMIA LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

Ordua: 21:00  
Lekua: Gernikako Arbola plazaren luzapena

Epaimahaiak XXXVIII. Gastronomía Lehiaketarako gertatutako platerak dastatu eta gero, bi sukaldari irabazleen izenak ezagutuko ditugu. Ondoren, sukaldariak eta laguntzaileek gustu handiz triparatuko dute prestatutakoa Ederrena pilotalekuan.

## TXISTULARIEN ALARDEA

Ordua: 23:00  
Lekua: Iparragirre plaza

### EGITARAUA

Oskorriren potpourria (Mold: Xabier Zabala)  
Antzinako minuetoa (Luis Aranburu)  
Maitia nun zira (Herrikoia)  
Beidakar (Ramon Esnaola)  
Iturbe (Ramon Esnaola)  
Lizarriturri (Ramon Esnaola)  
Argentinari amets bat (Roberto Lopez)  
Androkanto (Mold: Xabier Barriola)  
Ilun-ikarak (I. Larzabal/Mold: M. Arratibel)  
Otsagabia (Mold: Kepa de Miguel)  
La Pilindros (S. Erkizia/Mold: K. Sanchez)  
Gure esku dago (Mold: Xabier Barriola)  
Baina bihotzak dio... (E. Iturbe/Mold: G. Hermosa)  
Biribilketen potpourria IV (Mold: Xabier Zabala)  
Gernikako Arbola (J.M. Iparragirre)



Urretxuko Lizarriturri Txistulari Taldearen eskutik (Eguraldi txarra egingo balu, Aldiri kiroldegian izango da.)

### PARTAIDEAK

- GOIARGI abesbatza  
- SEKUNDINO ESNAOLA musika eskolako haurren abesbatza  
- GOROBEL metal boskotea  
- LURRA eta IRRINTZI dantzari taldeak  
- IRATZARRI dultzainero taldea  
- Herriko hainbat abeslari  
- Ederne ITURBE trikitilaria  
- Roberto LOPEZ soinu-jolea  
- Javier ARRATIBEL pianojolea  
- Herri askotatik etorritako TXISTU-LARIAK

### AURKEZLEAK

Amaia Aranburu eta Jesus Mari Garralda

### ZUZENDARIAK

Ibon Garmendia eta Jose Javier Larrañaga

### ANTOLATZAILEA

Urretxuko Lizarriturri Txistulari Taldea

### LAGUNTZAILEAK

Urretxuko Udala eta Kutxa

## THE SPARTEENS DANTZALDIA

Ordua: 00:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza



Iparraldetik datorkigun The Sparteens taldea izango dugu gurean. Imaginatzen al dituzu "Zu atrapatu arte", "Txus" edota "God save the Queen" bezalako kantuak ye-ye estiloan? Ez dago bada gehiago imaginatu beharrik, The Sparteens taldeak musika proposamen horixe baitakar. Estetikari eta kontzeptuari garrantzi berezia ematen dio taldeak eta single bakoitzarekin beti dator sorpresaren bat; dela txokolate beroa, dela piruleta bat edo dela eurekin kantatzeko aukera emango dizun baba ezkuturen bat.

## KASHBAD + ZOPILOTES TXIRRIAOS + KOLPATU

Ordua: 01:00  
Lekua: Txosna Gunea



Kashbad taldea bueltan da. Elkarrekin, duela hamalau urte musika tresnak zintzilikatu zituzten modu berdinean: Txiki, Gorka, Sorkun eta Gorkita.

Los Zopilotes Txirriaos taldeak napar-mexerako musika jorrazten du. Kojon Prieto eta Los Huajalotes taldearen antzera, mexikar rantxerak dituzte musika sustrai.

Kolpatu! taldeak Kortatu talde mitikoaren bertsioak ekarriko dizkigu.



### DIANA

Ordua: 10:00  
Lekua: Kaleetan zehar

URRETXUKO "LIZARRITURRI" TXISTULARI TALDEA, "ZUMARRAGAKO TRIKITIXA" eta "IRATZARRI" DULTZAINEROEN DIANAREKIN emango diogu hasiera egunari.

ANIMATU PARTE HARTZERA ETA JANTZI BASERRITAR!



### KALEJIRA

Ordua: 10:30  
Lekua: Pagoetan hasi eta Gernikako Arbola plazaraino

BEHI-AZIENDAK LEHENDIK ORAIN-GORA gaia jorrazteko beharrezkoa den materiala eramango dute GURDI ETA LERA BATEN BUELTAN KALEJIRA, HERRIKO MUSIKARIEKIN ETA DANTZARIEKIN: "Zumarragako trikitixa" eta Urretxu-Zumarragako eusko dantzari ikasleak.

### DASTAKETA

Ordua: 12:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Behiekin zerikusia duten produktuak dastatzeko aukera izango da.



### ARTISAUEN ERAKUSKETA

Ordua: 11:00etatik aurrera  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

ARTISAUEN ERAKUSKETAKO GAI MONOGRAFIKOA: BEHI-AZIENDAK LEHENDIK ORAIN-GORA

Azken 50 urte hauetan ikaragarri aldatu da baserriaren ustiaketa. Horren adibide da behi-aziendek jasan duten aldaketa. Garai batean, behiek haragitarako edo esnetarako aukera ematen zuten, baina gaur egun, gauzak asko aldatu dira: hortik bizi nahi duenak espezializazioa jo behar izan du.

baita haren inguruan ere. Garai batean soro zirenak, belardi dira orain; tentuz zaindu beharrekoak, gainera. Eta zer esanik ez gure paisaiari ematen ari zaion aldaketa.

Ganadua oso kontrolatuta dago eta horrek ere eragina du haren elikaduran eta baita ukuiluen garbitasunean ere. Gai hori aurkeztuko dute herriko artisauak eta Lekaio kultur elkarteak.



### EUSKAL JAIALDIA

Ordua: 11:15-14:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Bertan izango da Urretxuko "Lizarriturri" txistulari taldea.

11:15 Gurdiaren iritsiera plazara trikitilariekin eta Urretxu-Zumarragako euskal dantzari ikasleekin.

11:30 Lurra dantza taldearen saioa.

12:15 Erraldoien ailegaera plazara eta balsa dantzatzea, Iratzarri dultzaineroen laguntzaz.

12:30 Euskal dantzari ikasleen saioa.

13:00 Artisau erakusketako gai monografikoaren azalpenak.

13:30 Bertso eskolako bertsolarien saioa.

13:50 Grupo Folklórico Raices de Cenicientos (Cenicientos-Madrid) dantza taldearen saioa.

### ERRALDOIAK

Ordua: 12:00  
Lekua: Kaleetan zehar

Aldiri kiroldegian elkartuko dira, LE-KAIO Kultur Elkartearen eskutik. Donapaleuko, Legazpiko eta Urretxuko konpartsak izango ditugu. Gero, 12:00etatik aurrera, kalejiran ibiliko dira kaleak alaitzen: Labeaga kalea - Iparragirre kalea - Abenida - Gernikako Arbola plaza (dantza egingo dute) - Areizaga - Nekolalde kalea.



### KARROZEROEN KONZENTRAZIOA ETA SALDA

Ordua: 12:30  
Lekua: Txosna Gunea (Nekolalde)

KALEJIRA Iparragirre plazan dagoen Gazte Bidean lokaleraino. Han pintxo goxo-goxoa izango da.

### BENTA ZAHARREKO MUTIKO ALAIK

Ordua: 13:00  
Lekua: Iparragirre kalea

KANTU SAIOA Urretxuko, Zumarragako eta Urrestillako kidez osatutako



### HERRI BAZKARIA

Ordua: 14:00  
Lekua: Ederrena pilotalekua

EUSKAL JAIAREN partaide guztien arteko bazkari ederra.





## KARROZEN IBILALDI IKUSGARRIA

Ordua: 17:30  
Lekua: Mugitegitik hasita

Karrozen ibilaldiaren hasiera. Irteera Mugitegi industrialdeatik izango da. Aurten, 14 koadrila aritu dira lanean. Koadrila hauek egindako karrozek eta ondoren aipatzen ditugun taldeek osatuko dute Euskal Jaiako ibilaldia.

- \* Azpeitiko "Itsasi" Zanpantzar taldea
- \* Arrasate, Tolosa eta Urretxuko "Iratzarri" dultzaineroak
- \* Donapaleu, Legazpi eta Urretxuko erraldoiak.
- \* Urretxuko "Lizarriturri" Txistulari taldea

## KARROZAK, DANTZA ETA MUSIKA TALDEAK:

- 1.-GU GEU
- \* "Lurra" Dantza Taldea
- 2.-TOZ
- \* Onatiko trikitilariak
- 3.-EYAK JODIU
- \* "Raices de Cenicientos" (Madrid)
- 4.-HAPU
- \* Tobera Musika Eskola (Zegama)
- 5.-ZANGALATRABA
- \* Trikitilariak
- 6.-KAGAU DIAU!
- \* Urretxu-Zumarragako Eusko Dantzariak
- 7.-19 ETA KITTO!
- \* Secundino Esnaolako trikitilari taldea
- 8.-ZEINEIKEN
- \* Larraiza dantza taldea (Lizarra)
- 9.-ZORO
- \* Urretxuko trikitilariak
- 10.-IPARRALDEKO HARROXKOAK
- \* "Irrintzi" dantza taldea
- 11.-ZUFIAURRE
- \* Legazpiko trikitilariak
- 12.-GUZTIOK BAT
- \* "Lurra" Dantza Taldea
- 13.-ATZEBE
- \* Ormaiztegi trikitilariak
- 14.-MDY
- \* Secundino Esnaolako Metal Taldea

## ZSK-ren TXALAPARTA SAIOA

Ordua: 18:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

"ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN" TXALAPARTA saioa.



## KARROZEN IRITSIERA

Ordua: 19:15  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola plazan sartzen hasiko dira.

## EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Ordua: 20:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Denak Gernikako Arbola plazara heldu ondoren, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA jakinaraziko da.



## FAN & GO

Ordua: 22:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Erromeria giro apartarekin Fan&Go taldearen eskutik.

## EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA

Ordua: 23:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Kantuarekin eta musikarekin batera.

Euskararenugarraz, Guztion indarraz... Piztu zeuk ere zeure txingarra!

## ERROMERIA TXOSNETAN

Ordua: 00:00  
Lekua: Txosna Gunea

Erromeria izango dugu aurten-goan Euskal Jaiari amaiera eder bat emateko, **SALDA BADAGO** eta **MODESTO, ORKESTRA GIZONA**.



## "BEDAIOKO INGURUTXOA" DANTZA HERRIKOIA

Ordua: 00:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza



## FAN & GO

Ordua: 00:30-02:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Bedaioko Ingurutxoa dantzaren ostean, instrumentuak hartu eta dantzaldiak aurrera egingo du.

## FAN & GO

2008an Zarautzen sortutako erromeria taldea da. Urte hauetan zehar gehienbat laukote modura ibili arren, boskote modura dabilena orain plazararik plaza. Estilo oso ezberdineko musika jotzen du Fan&Go-k, atzo eta gaur egungo kantuak tartekatuz, publiko ororen atseginetara moldatuz: rocka, kumbia, fandangoa, arin-arina, rantxera...

## HAURRENTZAKO PARKEA

Ordua: 11:00-14:00  
Lekua: Domingo de Mendiaratz plaza

Txu-txu tren, bizikleta zirkuitoa eta puzgarriak.

(\* Eguraldi txarra egingo balu, ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.)

## MOTO ETA PATINETE LASTERKETA EROA

Ordua: 12:00  
Lekua: Domingo de Mendiaratz plazatik abiatuta



Haur txikitxoei zuzenduta, plastikozko motor eta patinete lasterketa. Ezinbestekoa da kaskoa jarrita eramatea. Izen-ematea, 11:30ean, plazan bertan.

Honela banatuko dira mailak eta sariak:

- MOTORRAK 1. maila 2010-2011 urteetan jaiok
- MOTORRAK 2. maila 2008-2009 urteetan jaiok
- PATINETEAK 3. maila 2006-2007 urteetan jaiok
- PATINETEAK 4. maila 2004 - 2005 urteetan jaiok

## ZEZENTXOAK

Ordua: 12:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

Gazte eta ez hain gazteen ausardia probatzeko aukera bikaina. Gainera antolatuko diren ZEZEN-JOLASE-TAN parte hartzeko aukera izango duzue. Izen-ematea, plazan bertan.

Plazan "IRAUNKORRAK" Txarangak girotuko du ikuskizuna.



## KOADRILEN PISAKETA

Ordua: 12:30  
Lekua: Ederrena pilotalekua

Koadrilen arteko jokuetan parte hartuko duten koadrilen pisaketa.

## "IRAUNKORRAK" TXARANGA

Ordua: 12:30  
Lekua: Kaleetan zehar

Kaleetan zehar ibiliko da koadrilak dantzaren jartzen.

## HERRI BAZKARIA

Ordua: 14:30-17:00  
Lekua: Abenida

\* Eguraldi txarra egingo balu bazkaria Ederrena pilotalekuan eta Gernikako Arbola plazako luzapenean egingo litzateke.

## HAURRENTZAKO PARKEA

Ordua: 17:00-20:00  
Lekua: Domingo de Mendiaratz plaza

Txu-txu tren, bizikleta zirkuitoa eta puzgarriak.

(\* Eguraldi txarra egingo balu, ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.)



## KOADRILEN ARTEKO JOKOAK

Ordua: 17:30-19:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

17:30 Gernikako Arbola Plazan KOADRILEN ARTEKO SOKATIRA. Pisaketa eta izen-ematea 12:30ean izango da Ederrena pilotalekuan.

Ondoren, txosnetatik abiatuta eta Urretxuko aldapan beheara, hainbat proba dibertigarri eta labainkor...

"IRAUNKORRAK" TXARANGA ikuskizuna eta kaleak girotzen ibiliko da.



## DANTZALDIA

Ordua: 20:00  
Lekua: Gernikako Arbola plaza



URRETXUKO "IPARRAGIRRE BALERDI" MUSIKA TAILERREKO BANDAREN eskutik, gozatu ahal izango dugu.

## KANTU AFARIA

Ordua: 21:30  
Lekua: Gernikako Arbola plaza

(\*Eguraldi txarra egiten badu, Gernikako Arbola plazako luzapenean egingo da.)

Adin guztietako jendea elkartuta, ogitarteko goxoak janaz, lehengo eta oraingo euskal abestiak abesteko aukera aparta: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa, Mikel Markez, Ken Zazpi, Hertzainak, etab. Betiko parranda-kantu ezagunak ere abestuko ditugu, eta hori guztia herriko zenbait musikariren laguntzaz, giro jatorrean.



## BIXAMONA FEST

Ordua: 20:00  
Lekua: Txosna Gunea

Aurten laugarrengoz ospatuko da Bixamona Fest! eta aurten ere afaltzeko aukera paregabea izango da.

Ondoren, 2 rock talde esanguratsu. Sofa Zarauztik dator sofatik altxa eta mugitzera gonbidatuko duen hirukote instrumentala.

Igelaren bandak euskal kantu edo dantza zaharren bertsio berriak sortzea du xede. Historian lehen aldiz txosnetan jazz kontzertu bat ikusteko aukera izango dugu.



ETA HONEKIN BUKATUKO DIRA AURTENGO URRETXUKO JAIK. ONDO PASA!

# irailak 27 larunbata

laguntzaileak:

## PLATER TIRALDIA

Ordua: 15:30-18:00  
Lekua: Urtatzako zelaian  
(Legazpi)  
Aspaceren aldeko plater tiraldia



SANTA BARBARA  
ATERPETXEA  
JAIKIRAKO MEJU DEKAZIA

Enfrenta la di dera  
zorroa eta porroa,  
larrak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta  
kaskoak eta

elaterpe@gmail.com 943 72 33 87  
www.santabarbaraterpetxea.com

*Agirreaga*

tel.: 943 54 09 37 - URRETXU

# irailak 28 igandea

## ELKARTE ARTEKO ZIKLOTURISTA PROBA

Ordua: 09:00  
Lekua: Irteera eta helmuga,  
Areizaga-Kalebarren plaza  
Informazioa  
[www.goierrike.net](http://www.goierrike.net)



PINTURAS y REVESTIMIENTOS

**La Perla**

*Jai Zoriontsuak opa dizkizuegu!*

Plaza Navarra, 1  
☎ 943 72 17 58  
Fax 943 72 09 85  
ZUMARRAGA

Laboaga, 45  
☎ 943 72 35 94  
URRETXU

[www.pinturaslaperla.com](http://www.pinturaslaperla.com)

**ORTOPEDIA - PODOLOGIA**  
Susana Enparanza Arostegi

*Coaxerito eta Diputazioa y Oaxkideak*

☎ 943 72 59 18  
Laboaga, 33 K behea  
URRETXU

NO MÁS ESFUERZO!  
SISTEMAS ADAPTABLES  
A CUALQUIER  
SILLA

La silla está adaptada al usuario.  
Los productos son cómodos y fáciles de usar.

# Euskal Jaia 2013





**Urretxu**ko udala

[www.urretxu.net](http://www.urretxu.net)